

HAURRIDEEN IZENAK HIZKUNTZA BATZUETAN

Xabier Kintana

Senideek beren arteko kidetasuna izendatzeko darabiltzaten sistema bereziet aspaldian ohartuak dira hizkuntzalariak, eta Jose Luis Alvarez Enparantza ere horren inguruan aritu zaigu inoiz, gaztelaniaz hain banaturik dauden *sobrino* eta *nieto* kontzeptuak euskaraz maiz zergatik hain nahasirik agertzen diren azaltzeko. Izan ere, iturrira joanez gero, gure *loba*, jatorrian, 'senide hurbil baten semea edo alaba' zen, hots, 'seme-alaba edo edo nebarreba baten haurra', baina geroagoko euskaldunok, gure inguruko gaurko hizkuntzen sailkapen zehatzagora egokitzeke, hortik *loba/iloba/biloba* bezalako bereizketak egiten saiatu gara. Haurrideen esparrura etorririk, Antonio Tovarrek ere bere garaian aski ongi jorrratu zuen arlo hau, baina aspaldi honetan oraintsu arte ezezagunak genituen hizkuntza arrotz batzuetatik eskuratu ahal izan ditugun datu berrien argitan, ene ustez, ez letorkiguke gaizki puntu honi berriz ere gainbegirada bat egitea.

Gauza jakina denez, gure inguruko indoeuropar hizkuntza guztietan gurasoek izandako seme-alaben arteko harremana, aipatuaren sexuaren arabera, bikoitza den bitartean (cfr. lat. *frater/soror*, ing. *brother/sister*, bret. *breur/c'hoar*, err. *brat/siestra*, lituan. *brolis /sesuo*, pers. *baradar/khabar*, hindi *bhāi/bahin...*), hots, beste haurrideekiko erreferentzia hor sartu gabe, euskarak, aldiz, guraso berberengandik jaiorikoak izendatzeko orduan, beren sexuaren aipamenaz gainera, beste haurridearen sexuarekiko erlazioa ere erakusten digu, indoeuropar sistema bikoitza, gure kasuan laukoitza izanez:

Gizonezkoak:

- 1) beste gizonezko haurride batekiko. *anaia*
- 2) beste emakumezko haurride batekiko. *neba*

ziren eta haizu ez ziren sexu-harremanen antolaketa berri horrek bere islada utzi zuen hizkuntzan ere, eta gizarte horiek geroago oraingo familia sindiasmiko edo monogamikoaren antolaketara heldu diren arren, halere, mintzaira batzuetan, hitzen inertziagatik, berba markatu haiek lehenagoko egoera haren oroipen fosil gisa heldu zaizkigu⁴. Horrek azal lezake, adibidez, *neba* '(arrebarentzako) mutil galarazia' eta *arriba* '(nebarentzako) neska galarazia' hitzen existentzia, inolako taburik edo debekurik markatzen ez zuten *anaia* eta *ahizpa* neutroen parean. Azpimarratzekoa da, bestalde, euskaraz, sistema laukoitz horren elementu bat galdu denean, *neba*, alegia, hori hitz markatua izatea, hain zuzen.

Sistema laukoitz honek badu kiderik munduko beste berbeta batzuetan ere. Horrela gertatzen da, adibidez, kartveliar familiako svanera deritzon hizkuntzan (georgieraren senide urrunduen) edo Madagaskarren mintzatzen den malgaxe mintzairan, berau, jatorriz malaio-polinesiarra izanik:

	svanera	malgaxea
'anaia'	muxbe	<i>rahalahy</i>
'neba'	žimil	<i>anadahy</i>
'arriba'	dačvir	<i>anahavy</i>
'ahizpa'	udil	<i>rahavavy</i>

Azken hizkuntza horretan *lahy* hitzak 'ar' eta *vavy* hitzak 'eme' kontzeptuak adierazten dituztela kontuan izanik (Cf. *zanaka lahy* 'semea' eta *zanaka vavy* 'alaba' edo *lehilahy* 'gizona' eta *vehivavy* 'emakumea') lau hitz horiek bi sailetan bana ditzakegu: sexu berekoen arteko izenak, *rahalahy* / *rahavavy*, hots, 'haurride ar' / 'haurride eme' eta sexu ezberdinekoak, *anadahy* / *anahavy*, agian noizbaiteko tabuari erreferentzia egiten dion lehen ele-

⁴ Era honetako adibideak ugariak izaten dira hizkuntza guztietan, bai lexikoan eta bai esapideetan ere. Hortxe ditugu, adibidez, idazteko *luma*, antzinan hegaztien hegatzes egiten zirelako, Fisikan erabiltzen den *zaldi potentzia* unitatea (zenbat zaldi ditu auto honek?), behialako zamarien oroitzapenean; *jauna* eta *andrea*, gaur kortesiazko izendapen hutsak, baina Erdi Aroan noblezi maila adierazten zutenak, espainierazko *caballero* hitzaren antzera, gaur 'zaldun' kutsua galdua duen arren. Horixe bera gertatua da frantsesezko *maréchal* berbarekin ere, antzinan 'zaldien ardura zuen ofiziala' (gogoan izan *maréchal-ferrant*) eta gaur 'mariskala', adiera horrekin ingelesezko *marshal* bilakatuz. Gauza bera esan liteke, nolabait, geure asaba zaharren oroitzapenean daramatzagun deitura askori buruz, geure gaurko izaera edo ofizioarekin inolako zerikusirik izan ez arren: eusk. *Alkate*, *Baltza*, *Ezkerra*, *Gorria*, *Harginena*, *Haroztegi*, *Oñederra*, *Otsoa*, *Xurrio*; esp. *Alfayate* 'jostuna', *Barrangán*, *Calvo*, *Delgado*, *Feo*, *Herrero*, *Moreno*, *Seisdedos*, *Zapatero*; cat. *Castanyer*, *Moliner*, *Savater*; fr. *Chevalier*, *Pasteur*, *Tavernier*; ing. *Brown*, *Fishman*, *Miller*, *Smith*, *White*; al. *Fischer*, *Müller*, *Schneider*... Honetaz ere aspaldian mintzatu zen Mitxelena bere "Sobre algunos nombres vascos de parentesco", 116-117. orr.

mentuaren ondoan, seguraski javaera, indonesiera eta tagalog hizkuntzetan bizi-bizirik dirauen *anak* 'haur' berbaren etorki berekoa (cf. malgatxezko *zaza* 'haur' eta *zanaka* 'seme edo alaba'), beste bat erantsiz, zein sexutakoa den azaltzeko.

Amerikako hizkuntzei begiratzuz gero, ez dira gutxi euskararen zatiketa hori gorde dutenak. Euskaltzaindiaren Azkue bibliotekan amerindiar mintzairaz dauzkagun gramatika eta hiztegiei gainbegirada bat egin ondoren, hortik datu interesgarri batzuk atera ahal izan ditut. Azterturiko hizkuntzak Mexikoko zapotekera, Peru ekialdeko matxiguenga, eta Ekuadoren, Perun eta Bolivian mintzatzen den kitxua izan dira.

	zapotekera	matxiguenga	kitxua
'anaia'	bisa	iye	wauqe
'neba'	benaz'an	icha	tura
'arriba'	benaz'an	incho	pana
'ahizpa'	bila	ocha	ñaña

Ageri denez, azken hizkuntza biok, euskarak bezala, izen banaz bereizten dituzte neba-arrebak. Ordea, zapotekerak funtsean hiru izen besterik ez ditu bereizten, anaiarena, ahizparena eta neba-arrebena, bi hauetako bakoitza izen bakarraz adieraziz, agian behiala 'tabua edo sexu harremanetarako zilegi ez den pertsona' esan nahi zezakeena.

Sexukidetasuna/sexu-ezberdintasuna

Beste hizkuntza batzuetan sexu-bereko / sexu ezberdineko haurrideen bereizketa hori berdin mantentzen da, baina haurride bakoitzaren sexua aipatu gabe. Hori gertatzen da, adibidez, Lesothoko sesotho bantu-hizkuntzan edota Kaledonia Berriko kanaken⁵ huailu deritzon mintzairan. Banaketa horren arabera ere harreman debekatuko kideak berdin izendatuko lirateke, behe-rago Amerikako kaktxikel hizkuntzan ikusiko dugun bezala:

	sesothoa	huailua
'anaia'	<i>ngwanabò</i>	<i>beéri</i>
'ahizpa'	<i>ngwanabò</i>	<i>beéri</i>
'neba'	<i>kgaitsedi</i>	<i>kùnù</i>
'arriba'	<i>kgaitsedi</i>	<i>kùnù</i>

Sesothoz *ngwana* 'haurra' da, eta dirudienez *ngwanabò* hitza izen horretatik datorke.

⁵ Kaledonia Berriko jatorrizko bizilagunen *kanak* izena gorago aipatu den *anak* 'haur' izenetik dator. Europatik, Frantziatik bereziki hara kolono modura joandakoei, ordea, *caldоче* esaten zaic.

Bestelako kasua: diola

Badira, ordea, bestelako sailkapena egiten duten hizkuntzak. Kasurik nabarmena diola izeneko mintzaira da, Senegalen hegoaldean laurehun mila lagunek edo erabilia. Hor haurride arteko bereizketa ez da aurreko kasuetan bezala sexu bereko/sexu ezberdinekoen artean, eta erreferentzia bakarra 'norekiko haurridea' izatean datza, alde batean gizonarekiko haurrideak (neskak zein mutilak izan) eta bestean emakumearekikoak (neska zein mutil) jarritan. Honetara:

'mutil baten haurridea, anaia zein arreba' *ati*
 'neska baten haurridea, neba zein ahizpa' *alin*

Kasu berezia: maputxeena

Txilen mintzatzen den maputxeera edo mapudungu hizkuntzan haurrideen harremanek are korapilatsuagoak ditugu, hor, 'haurridea' kontzeptua amaren ahizparen aldetiko lehengusu-lehengusinenarekin nahasten delako, Lewis Morganek Amerikako indiarren artean normaltzat jotzen zuen antzinako familia punaluaeren ereduarekin bat⁶.

Mapudungua

'anaia' *peñi*
 'arreba' *lamngen*
 'neba' *deya; lamngen*
 'ahizpa' *lamngen*
 'amaren ahizparen alaba edo semea' *lamngen*

⁶ Jesusen amaren betiereko birjintasuna justifikatzeko, Eliza katolikoak, era horrextan interpretatzen du ebanjelioaren ondoko pasarte hau: "Jendeak, harriturik, honela zioen: "Nondik du honek honelako jakinduria, eta nondik mirari horiek? Ez al da, bada, arotzaren semea? Honen amak ez ote du izena Maria, eta bonen anaiek Jakob, Josef, Simon eta Juda? Eta horren arrebak ez ote dira denak gure artean bizi?". Mat. XIII, 54-56; hau da, hor bereziki aipatzen diren anaia-arreba horiek lehengusu-lehengusinak edo senide hurbilak balira bezala, semiten arteko behialako ohitura zaharrari jarraikiz. Protestanteek, ordea, testu berean oinarriturik, hitzak beren horretan errespetatuz, Jesusek gutxienez lau anaia eta, gutxienez, bi arreba izan zituela onartzen dute, horrela Mariak, gutxienik jota, zazpi seme-alaba ukanez.

Adinaren araberako bereizketak

Sexuari barik, haurrideen adinari begiratzen zaio beste hizkuntza batzuetan, eta norbera baino haurride zaharragoak, neskak eta mutilak, gazteagoetatik izen bederaz banatzen dira, sailkapen laukoitza eginez. Horien artean hungariera, mongoliera, tamilera (Indiaren hegoaldean eta Sri Lankan 40 milioi lagunek egiten duten dravidiar hizkuntza), vietnamera, Kanputxeako khmerera eta Burkina Fasoko more hizkuntza aipa daitezke. Behean ageri denez, horien arteko batzuek lau kontzeptuetarako hitz ezberdin bana daukate, beste batzuetan eredu elkartuak edo hitz bakarra duten artean.

	hungar.	mongol.	tamilera	vietnamera	khmerera	morea
'anaia edo neba zaharragoa'	<i>bátya</i>	<i>ax</i>	<i>annan</i>	<i>anh</i>	<i>bâng</i>	<i>kinmā</i>
'anaia edo neba gazteagoa'	<i>öcs</i>	<i>düu</i>	<i>tambi</i>	<i>em</i>	<i>pha aun</i>	<i>yae</i>
'arriba edo ahizpa zaharragoa'	<i>néne</i>	<i>egtch</i>	<i>akkal</i>	<i>chi</i>	<i>bâng srei</i>	<i>tāouà</i>
'arriba edo ahizpa gazteagoa'	<i>hug</i>	<i>düü</i>	<i>tangae</i>	<i>em gái</i>	<i>pha aun srei tāouà</i>	

Badira hizkuntza batzuk (dakota, guaraniera, guaraunoera, kaktxikela...) "neba-arriba" sistema laukoitzari "norbera baino zaharrago/gazteago" banaketa ere eranstean diotenak, Tovarrek eta Pedro de Yrizarrek jakinarazi zigitenez⁷:

	dakota	guaraniera	guaraunoera	kaktxikela (maia hizkuntza)
'anaia nagusia'	<i>ciŋye</i>	<i>rike-î</i>	<i>daka</i>	<i>rach'alal</i> — <i>runimal</i>
'anaia txikia'	<i>suŋka</i>	<i>riwi</i>	<i>daje</i>	<i>rach'alal</i> — <i>chak'laxel</i> edo <i>ruchak'</i>
'neba nagusia'	<i>timdo</i>	<i>kivi</i>	<i>dakobo</i>	<i>ruxib'al</i>
'neba txikia'	<i>suŋka</i>	<i>kivi</i>	<i>dakobo</i>	<i>ruxib'al</i>
'arriba nagusia'	<i>taŋke</i>	<i>teindi</i>	<i>dakoy</i>	<i>rana'</i>
'arriba txikia'	<i>taŋksi</i>	<i>teindi</i>	<i>dakoy</i>	<i>rana'</i>
'ahizpa nagusia'	<i>cuŋwe</i>	<i>riké</i>	<i>dajia</i>	<i>rach'alal</i> — <i>runimal</i>
'ahizpa txikia'	<i>taŋka</i>	<i>kipi-î</i>	<i>daiba</i>	<i>rach'alal</i> — <i>chak'laxel</i> edo <i>ruchak'</i>

Oinarriz sistema hau zortzikoitza litzatekeen arren, praktikan badirudi nekez betetzen dela, beti izaten baita balio bikoitza duen hitzen bat. Dakotaren kasuan berba bakarra dugu, adibidez, 'anaia gazteagoa' eta 'neba gazteagoa' adierazteko: *suŋka*. Halere, guaranieraz eta guaraunoeraz (Orinoko ibaiaren iturburu aldeko mintzaira) -Tovarren arabera, Hego Amerikako beste hizkuntza batzuen antzera- mentsa sistematiagoa da, hots, adinaren arabera bereizten diren bakarrak norbere sexuko haurrideak dira, hau da, anaiak eta ahizpak, baina ez nebak eta arrebak, eskema hori praktikan seikoitz geldituz. Kaktxikelaz -maia hizkuntza berau- murrizpena are handiagoa da: alde batetik hitz bakarra du sexu bereko haurrideak adierazte-

⁷ Ikus A. Tovar-en *Los nombres de hermano y hermana en vasco* eta Pedro de Yrizar-en *Sobre los nombres de hermano y hermana*, bibliografian aipatuak.

ko, eta horren kariaz 'anaia' eta 'ahizpa' hitz bakarraz adierazten dira: *rach'alal*. Halere, anaiak eta ahizpak adinaren arabera ere bereizten dira, 'norbera baino nagusiagoak' (*runimal*) eta 'txikiagoak' (*chaq'laxel* edo *ruchaq*), hor ere sexu-ezberdintasunik egin gabe.

Beste kasu batzuetan, ordea, adinaren araberako bereizketa bikoitza izaten da, norbera baino hairride zaharragoak alde batetik, eta gazteagoak bestetik, sexu-erreferentziarik gabe. Hori gertatzen da, adibidez, Afrikako kanuri (Txad lakuaren inguruko mintzaira), wolof eta yoruba hizkuntzetan, eta Asiako thailandieran ere:

	wolofa	yoruba	kanuria	thailandiera
'norbera baino haurride zaharragoak'	<i>mag</i>	<i>ègbón</i>	<i>yaya</i>	<i>phü</i>
'norbera baino haurride gazteagoak'	<i>rak</i>	<i>àbùrò</i>	<i>krami</i>	<i>nóng</i>

Sexuaren araberako bereizketa

Hasieran aipatu dugunez, indoeuropar hizkuntzen artean ohikoa den sexuaren araberako sailkapen bikoitza aski zabaldua da munduko beste hizkuntza askotan ere, 'neska haurridea' eta 'mutil haurridea' bereiztuz. Hori erakusten digute, adibidez, kontinente guztietatik eta hizkuntz familia ezberdinetatik harturiko adibide hauek. Gorago esan denaren arabera, etnologo batzuen ustez banaketa bikoitz hau aurreko banaketa laukoitz zaharragoa murriztetik letorke:

	aimara	arab.	swahilia	suomiera	georgiera	japon.	txinera
'mutil haurridea'	<i>jila</i>	<i>akh</i>	<i>ndugu</i>	<i>veli</i>	<i>dzma</i>	<i>kyōdai</i>	<i>xiōng dī</i>
'neska haurridea'	<i>kullaka</i>	<i>ukht</i>	<i>dada</i>	<i>sisar</i>	<i>da</i>	<i>nesan</i>	<i>zimèi</i>

Hauen artean badira, funtsean genero bietarako hitz bakarra izanik ere, beste berba laguntzaile edo atzizki baten bitartez sexua azpimarratzen dutenak. Horien artean ondoko hauek aipa genitzake: Asian karen (Birmanian, 3 milioi hiztun), laosera eta sasak (Bali aldekoa, milioi bat hiztun) hizkuntzak, Afrikako sango (Afrika erdian, 2 milioi hiztun), baule (Boli Kostan, milioi bat lagun) eta somaliera, Europan, Iberiar penintsulako erromantzeak (portugale-
ra, espainiera, katalana), greziera, turkiera eta Ozeanian maoriera.

	karen ⁸	laosera ⁹	sasak ¹⁰	sango ¹¹	baule ¹²
'anaia, neba'	<i>wei kwa</i>	<i>nōng sāi</i>	<i>semeton</i>	<i>ita koli</i>	<i>niaan bian</i>
'arrebak, ahizpa'	<i>wei mu</i>	<i>nōng sao</i>	<i>semeton nine</i>	<i>ita wali</i>	<i>niaan bla</i>

⁸ Cfr. hizkuntza bereko *shalkwa* 'gizona', *shamu* 'emakumea', *pu kwa* 'semea' eta *pu mu* 'alaba', azken hauen georgierazko *vaššvili* 'seme' eta *kališvili* 'alaba' hitzen antzera eratuak, formaz bederen, euskarazko *gizakume* eta *emakume* berben kide.

	somaliera	portugeses	greziera	turkiera ¹³	maoriera ¹⁴
'anaia, neba'	<i>walaal-ka</i>	<i>irmão</i>	ἀδελφός	<i>kardeş</i>	<i>tuakana</i>
'arriba, ahizpa'	<i>walaal-sha</i>	<i>irmã</i>	ἀδελφή	<i>kiz kardeş</i>	<i>tuahine</i>

Haurrideen arteko bereizketarik egiten ez dutenak

Badira, azkenik, sexuen artean inolako genero-bereizketarik ez duten hizkuntzak ere, 'haurride' kontzeptu soila emanez. Era horretako mintzairak ditugu, adibidez, Afrikaren erdialdeko Fasoko bobo, fang, duala, kikongo eta kiluba hizkuntzak, edo Ekialde Urruneko txam (Kanbodia), bahasa (Indonesia) eta bisaia (Filipinak):

bobo	fang	duala	kikongo	kiluba	txam	bahasa	bisaya
<i>ligé</i>	<i>monenyañ</i>	<i>ndome</i>	<i>mpangi</i>	<i>mwanetu</i>	<i>adey</i>	<i>saudara</i>	<i>igsuqun</i>

Itxuraz hitz bakarreko sistema hau gizarte antolakuntza zaharrenaren isla litzateke, baina hori zinez egiaztatzea ezinezkoa da, alde batetik antzinako lekukotasun idatziak falta ditugulako, eta bestetik, gerta baitaiteke, mendeetan zehar hizkuntzek izaten dituzten aldaketak gogoan izanda, gaurko egoera bakunera lehenagoko sistema korapilatsuago batetik helduak izatea. Horregatik, gaurko hizkuntzalaritzak, zorionez, Schleicher-en behialako darwinismo linguistiko gorazalea gainditua duenez, hobe dugu, Antonio Tovarrek duela berrogeita hamar urte inguru oso zuhurki egin zuenez, datuak bere hotzean uztea, aurrerapen-atzerapenezko balioespenik egiteke. Hitz gutxitan laburbiltzeko, neba-arrebak adierazteko sistemak, elementu bakarrekokoak, bikoitzak, hirukoitzak, lauhoitzak, seikoitzak eta zortzikoitzak izan daitezke, banaketa horiek egiteko irizpideak, sexua, adina, beste haurridekiko lotura ezberdinak, eta sexu-adinak izanik, tokian tokiko aldaera ugariekin.

Edonola ere, hor dira, gizakion kultur aniztasunaren ispilu, munduko hizkuntza batzuen adibide interesgarriak, zuzenik ez dakizkigun hizkuntza urrunak aipatzean maizegi gertatzen denez, azaldu diren hitz batzuen transkripzioetan gerta daitezkeen errakuntzak gora behera.

⁹ Cfr. laoserazko beste hitz hauek: *phū sai* 'gizona', *nāng* 'andrea', *nāng sao* 'andereñoa', *nūm* 'gaztea', *nūm sao* 'neska'.

¹⁰ sasak hizkuntzan *nine* 'alaba' da.

¹¹ Cfr. sangoko beste hitz hauekin: *wali* 'emakume, andrea, emaztea', *koli* 'gizona, jauna, senarra', *mòlèngè ti koli* 'semea', *mòlèngè ti wali* 'alaba'.

¹² Cfr. baulezko *bian* 'gizona', *bla* 'emakumea'.

¹³ Cfr. turkieraz *kiz* 'neska, alaba'.

¹⁴ Cfr. maorierazko *tama* 'semea' eta *tamahine* 'alaba', edo *wahine* 'emakumea'.

BIBLIOGRAFIA

AZA, José Pío, *Vocabulario español-machiguenga*. Lima, 1928.

BÄHR, Gerhard, *Los nombres de parentesco en vascuence*. Bermeo, 1935.

CAMPBELL, George L.: *Compendium of the World's Languages*. London-New York, 1991.

CARO BAROJA, Julio, "Sobre los nombres de parentesco en vasco". *Homenaje a D. Joaquín Mendizabal*, Donostia 1956, 91-97. orr.

COROMINAS, Joan, "Hurgando en los nombres de parentesco". *Fontes Linguae Vasconum*, 1970-III, 169-182. orr. •

Diccionario quichua-español / español-quichua, Ed. Santo Domingo, Quito - Ecuador, 1963.

EGUZKITZA, Andolin, "Ahaidetasunaren arlo semantikoa euskaraz". *Fontes Linguae vasconum*, 1977, 419-429. orr.

ENGELS, Federico, *El origen de la familia, la propiedad privada y el estado*¹³, Editorial Fundamentos, Madril, 1996,

MALHERBE, Michel, *Les langages de l'Humanité*. Robert Lafont, Paris, 1996.

Miskitu bila aisanka / Gramática miskita. Centro de investigaciones y Documentación de la Costa Atlántica, Managua, 1985

MITXELENA, Luis, "Sobre algunos nombres vascos de parentesco". *Fontes Linguae Vasconum*, 1969-I, 113-132. orr. Orobat *Sobre historia de la lengua vasca* liburuan, Gipuzkoako Foru Diputazioa, Donostia 1988, II, 492-508.

MUNSON L. Jo Ann, *Diccionario Cakchiquel central y Español*. Instituto Lingüístico de Verano de Centroamérica, Guatemala, 1991.

ORTIZ MAYANS, Antonio, *Nuevo Diccionario Español-Guaraní / Guaraní-Español*, Ed. Universitarias de Buenos Aires, 1980.

TOVAR, Antonio, "Los nombres de hermano y hermana en vasco" *BAP* 1949-V, 11-14. orr.

YRIZAR, Pedro de, "Sobre los nombres de hermano y hermana". *BAP* 1949-V, 273-275. orr.